

1974 - X - 11

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko urriaren 11n, arratsaldeko lauretan, Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruoedezko, A. Arrue, E, Erkiaga, A, Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; I. Berriatua, J. Berrojalbiz, J. Bilbao, J. Fernández Setien, S. Garmendia, X. Gereño, X. Kintana, J.L. Lizundia, C. Santamaria, J. Zaitegi, M. Zarate eta A. Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Barañdarian, Dassance, Diharce, Eppherre, Gorostiaga, A. Intza, A. Iraizoz, Irigaray, Krutwig, Labayen, Larre, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, eta Zabala jaunak ezin etorri adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko eta Iraileko batzar agiriak onartu dira.

Haritschelhar jaunak berri latza ematen digu, Bost-sei egun dela hil zela Gregoire Eppherre laguntzaile jauna.

a) HAR - EMANAK:

Nafarroako Foru Diputazioko buruordeari, "Principe de Viana" Institutzioko zuzendariari, eta Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalei, Irailaren 14an Udazubin Axularren omenezko bilera irekia antolatzen eman ziguten laguntzagatik eskerrak ematea erabaki da.

Iruñako Artzapezpiku jaunari, euskarari buruzko pastoralagatik (Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela, Septiembre 1974, N° 9, 545/550 orrialdeetan dakarrenagatik) zorionak ematea erabaki da.

Idazkariak aditzera ematen du, hil honen 7an Madrid-eko Ateneoan euskal katedra iriki dela, eta irikitze honen sarrera hitzaldia euskaltzainburuak egin duela. Katedraren arduradun R. Bozas-Urrutia euskaltzain laguntzaile jauna izendatua dela eta euskarazko irakaskintzetan Ganix Larratxe jaunak lagunduko diola. Astelen guztietan hitzaldiak antolatuko dituztela eta euskaltzaindikoei dei egiten zaie, hitzaldirik gertatu ahal lezanak bertara eskaintza egiteko.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Abuztuko hilean hartuak: J.J. Zearreta jaunak emana, **Etxahun Koblakari**, Etxaun Irurik huntü pastoralara ziberotarrez; Jakin argitaldaria emanak, elkar lanean osatutako **Lur eta gizon**, **Euskal Herria** eta Albert Memmi-ren **Kolonizatuaren ezaugarria**; Gipuzkoako Artxibo Probintzialeko Julio Rekalde jaunak idazkariari emanik, **Discusión sobre los Fueros de las provincias Vascongadas en el Senado en 1864**; eta J.V. Arakistainen **Tradiciones vasco-cántabras**; Marcelino Oreja Aguirre jaunak bere "Reflexiones sobre sociedad y cultura", discurso de ingreso en la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País; **La saudade en el renacimiento de la literatura gallega**, de Ricardo L. Landeira, **Cancionero popular galego**, de Ramón Cabanillas, id. id.; **Contribución al Dcc. Gallego**, Anibal Otero, id.id.; **Sobre lingua e literatura galega**, Ricardo Carballo, id.id; Revista "Grial" N° 23, "Sobre os dialectos do galego, id.id.; Rev. "grial" n°26, "Carta sobre da unificación lingüística", por Xavier Rodríguez Baixeras, Editorial Galaxia, Vigo L. Villasante jaunak emana, **Guión manual de tipografía vasco-navarra** eta **Catálogo de la Exposición Tipográfica vasco-navarra**; Y. Isigaki jaunak bere **To the peoples of Ethiopia the only Chistian Country in Afrika**.

Irailean hartuak: Donostiako Librería Graphos-ek emanak, J.A. Arze "harzabal"en **Insturizetik Tolosan' barru**, Ramón Zulaikaren **Ipui jatorrak - Cuentos liberales** (R. Muruak euskeratua), Bitañoren **Bigarren atalak**, Dominique Peille- nen **Itzal gorria** eta Santos T. Rekalderen **Deunor**. **Idahon artzain eta euskaldun**; J. San Martin-ek emana, Marcel Mauss-en **Introducción a la Etnografía**; Gero argitaldaria emana, Edorta Kortadiren **Artegintza, artista, gizartea (Espiralean gogoetaka)**; "Principe de Viana" k Aita Damaso Intza-koaren **Nafarroako euskal esaera zarrak**; Pedro Irizar jaunak bere **Los dialectos y variedades de la lengua vasca. (Variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo**, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", tomo VII (1973) liburuko separata.

Urrian hartutako liburukoak: Mikel Zarate euskaltzain laguntzaile jaunak emanik, bere **Hargintza minetan**, **Meza-liburu txikia** (Bizkaieraz), **Meza-liburu txi-**

kia (Gipuzkeraz), **Bizkaiko Euskal idazleak**: Derioko Seminario Ikastetxeak, Gure **Salbaziño Egintza**; Bilboko Obispaduak, Pio Parsch-en **Gure Meza-Deuna**; eta M. Zarate berak **El elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri (Gran Bilbao)**; M. de Neristain Humphrey-rena, berak bidalia, **El elemento euskaldun en el léxico de Bilbao**; R. Lafonek bere **Structure de la Déclinaison Basque.- Actes duxé dongrés internacionak des linguistes.- Die Baskische Literatur von ibren Anfängen bis 1900** eta **Pour la comparaison du Basque et des Langues Caucasiques - Bedi Kartlisa revue de kartvélogie**; Luis Mitxelena bere **Las Lenguas y la Política**; eta Zatarain jaunak emana, **Vernünftiger schreiben reform der rechtschreibung**.

Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

b) GOIZEKO EUSKALTZAIN OSOEN BILKURA BEREZIAREN BERRI:

A.Irigoyen jaunak eman du bileraren berri, kargu berritze deiak eginak zirenez, batzartu diren euskaltzainez eta heuen artekoak hartu dituzten poderioen bidez, 23 boto bildu direla. Botoetara joaz, izendapen hauek egin dira: Buru, Villasanté, 13 botokin; buruordeko Haritschelhar, 14 botokin; idazkari, San Martin, lehen botoetan 12 eta bigarrengoan 13 botokin; eta diruzain, Erkiaga, 14 botokin.

d) EUSKALTZAINDIAREN SARIKETAK: "T. ALTZAGA" eta "XENPELAR"

"Xenpelar" bertso-paper saria: lehenengoa Jean Pierre Mendiboure Iheletakoari bere "Arrosako zubien" eta "Sedimendu batzu" izeneko bertso sortagatik; bigarren saria Mattin Treku Ahetzekoari "Baserri hauzo zenari" izeneko bertso sailagati; eta hirugarren Segundo Kalonje Donostiakoari "Zar geienak pipiak jota" izenekoegatik.

Fernando Artola, Juan Mari Lekuona, Jose Maria Aranalde eta Antonio Zavalak osatzen zuten epai-mahaia.

"Toribio Alzaga" izeneko antzerki saria, "Gernika" izenekoari. Egilea, Luis Haranburu-Altuna.

Epai-mahaikoak, P. Larzabal, G. Aresti eta I. Beobide ziren.

e) ESTATU IZENAK:

Uztailean irakurri eta zabaldu zen txostenari egindako oharren berri eman da. Oregi, Berriatua eta Lizundia-k eginak. Ondorean, gaiari buruz luze jardun da

baina ezertariko erabakirik hartu gabe. Iritzien desberdintasuna ikusirik, mahain gainean uzten da.

f, **“LIÑUAREN PENAK”, A. JULIAN ALUSTIZAREN TXOSTENA;**

Villasante jaunak irakurtzen du Julian Alustiza jaunaren txostena, “Liñuaren penak” izenekoa. Liñuaren lanak euskal folklorean aztertzen ditu, langintza, giroa, hitzak ta abar. Gogoz entzun da.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

M. Zarate jaunak bere txostena eskaintzen du beste batzar baterako, Asturias-ko **La xiriga** hizkeran egin dituen bilketari buruz.

P. Lafitte jaunak, berak ekarri duena hurrengo batzarrerako uzten du.
J. Bilbao jaunak Ifar-Ameriketako euskaldunei buruzkoa eskaintzen du.
Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - XI - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko azaroaren 29an, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Lafitte, eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Berrojalbiz, J. Bilbao, Fernández Setien, S. Garmendia, X. Gereño, Goikoetxea Maiza, Lizundia, Zaitegi, Zatarain eta Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Irigoyen, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.